

# Matrikula Graduko 1. mailan (ikasle berriak)

## ONARPENAREN EGOERA KONTSULTATZEA



[Begiratu zure onarpenaren egoera](#)

## MATRIKULA EGITEKO AUKERAK

- [Online matrikula](#)

PC batetik baino ezin da egin, Google Chrome, Mozilla Firefox edo Microsoft Edge nabigatzaileak erabilia. Pop-up edo laster leihoak desblokeatu egin behar dira.

Jakinaraziko zaizun egunean eta orduan egin behar duzu automatrikula.

- [Aurrez aurreko matrikula](#) (automatrikula, horretarako prestatutako gelan)

Jakinaraziko zaizun egunean eta orduan, ordenagailua erabiliz, matrikula egingo duzu horretarako prestatutako gelan.

Erantsi beharreko dokumentazioa banaka eskaneatuta eta pendrive batean gordeta ekarri beharko da. Ezinezkoa bada, ikasleak 10 eguneko epean igo beharko du plataformara.

## MATRIKULA ORDAINTZEA

Eskolan, matrikula honela ordain daiteke:

- Banku-helbideratzea. Horretarako, matrikula ordaintzerakoan, bankuaren datuak jakinarazi beharko dituzu, eta [ordainketa helbideratzeko inprimakia](#) (pdf, 75 Kb) igo, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Bankuko ordainketa:
  - Online: Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidearen bidez: [Mipago Wallet](#)  
Gure Eskolan, matrikula ezin da txartel edo bizum bidez ordaindu.
  - ONLINE egin nahi ez baduzu, Kutxabankek campusetan dituen bulegoetara joan beharko duzu:  
Bilbon, Leioako campusean.  
Gasteizen, Heraclio Fournier kaleko 9. zenbakian. (3116 bulegoa).



**Ikasleak** aurrez aurre joaterik ez badu eta haren izenean norbait badator, ikasle interesdunaren NANaren fotokopia aurkeztu beharko du, baita baimena ere, hau da, [ikasle baten izenean matrikula egiteko inprimakia](#), behar bezala sinatuta. Halaber, ordezkariak aplikaziora sartzeko gakoekin, erabiltzailearekin eta pasahitzarekin joan beharko du.

## INFORMAZIO GEHIAGO

[UPV/EHU Graduko ikasketak egiteko onarpen- eta matrikula-prozedura](#)